

Bodegoi ezkutua



Hamaiketakoekin bodegoi sorta bat sortzeaz gain, formatuekin eta eskalarekin jokatu dugu. Leku ezkutuetan jarriko ditugu, agerian ez dauden tokietan, edota iristea zaila den lekuetan, jendeak aise aurkitu ez dituzan.

Helburuak

- Greta Alfaren sormen prozesu eta obrara hurbiltzea.
- Bodegoi edo natura hila kontzeptua gure egunerokotasunetik lantzea.
- Hezkuntza-komunitatea gogoeta-prozesu bat eragitea.
- Eskolako janari-errituei buruzko ikerketa bat egitea, eta ikerlan hori sormenezko tresna gisa erabiltzea.

Aipamenak

Canal 22. Greta Alfarekin elkarrizketa bere Eskuhartze Barrokoaren inguruan, 2012: vimeo.com/157278138

In Ictu Oculi, 2009 - Greta Alfaro: vimeo.com/26135993

El Museo del Prado descubre la naturaleza muerta de Clara Peeters: ritmos21.com/270934496/exposicion-museo-prado-clara-peeters.html

PRADO MUSEOA - Kolekzioa ezagutu /bodegoia: museodelprado.es/coleccion/obras-de-arte?searchObras=bodegon

GUGGENHEIM BILBAO - NATURALEZA MUERTA. La Edad de Oro de la pintura holandesa y flamenca del Städel Museum: guggenheim-bilbao.eus/aprende/mundo-escolar/guias-para-educadores/naturaleza-muerta

3 minutos de arte - bodegoia: 3minutosdearte.com/?s=bodegon

EXIT #18 - Naturaleza muerta: exitmedia.net/EXIT/es/exit/52-EXIT-18-Naturaleza-muerta.html

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Greta Alfaren hainbat lan ikusten ditugu.
2. Hainbat galdera egiten ditugu:
 - Non dago denboraren joana?
 - Zer material erabiltzen ditu bere lanetan? Zer elementu osatzen dituzte hauek?
 - Bi egoera horietan zer erritu diren espero izatekoak pentsatzen dugu eta "bestelako zer arau" sortzen diren une bakoitzean.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. 4naka eskolako gure janari-errituetan pentsatzen dugu: jostalekuan, jantokian, eskola hurbileko lekuetan... Zer duten berdin, eta zer ezberdin.
2. Bikoteka, koaderno batean idazten ditugu. Marratu edo idatz daitezke, eskemak egin edota kontakizun txiki bat egin.
3. Bikoteka ere jostalekura ateratzen gara koadernoarekin, beste pertsona batzuen errituei erreparatzeko: zer jaten duten, norekin, nola dagoen janaria bildua, zer egiten duten hondarrekin, jatean nola jartzen dituzten gorputzak, bestelako gauzarik egiten ote duten jan bitartean... Ekintza hori hiru jostalditan errepikatzen dugu, egoerak eta datuak errepikatzen ote diren ikusteko.
4. Hasieran osatu ditugun 4ko talde beretan, datuak aztertzen ditugu, eta geure errituekin alderatzen ditugu.

5. Aldi berean, landa-ikerketa horietan, ikasgelan, bodegoi kontzeptua azaltzen dugu. Zer da bodegoi bat eta zer irudikatzen du? Horretarako, 4ko talde bakoitzak natura hila kontzeptua ikertzen du eta hari buruzko testuak nahiz irudiak ekartzen ditu.

6. Gure bodegoiak sortzen ditugu, hamaiketakoetako gure elikagaiak erabilia, ohar hauei jarraiki, betiere:

- Ezohiko tokietan edota aurkitzeko zailak diren lekuetan jarri, hau da, janaria egon ohi ez den lekuetan.
- Konposizioek, halaber, jostaldietan egin diren ikerketak hartu beharko dituzte kontuan. Landa-koadernoak lagungarriak izanen dira.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Noizetik noizera, bodegoien argazkiak egiten ditugu, guk jarritako tokietan, nola bilakatzen diren ikusteko (bi ordutik behin, egunean behin, kasuaren arabera).
2. Egokitzen jotzen denean, bodegoi hondarrak biltzen ditugu eta lekuak garbitzen ditugu.
3. Argazkiak ikusgai jar ditzazkegu eta gainerako ikasleei gure proiektua azaldu. Zer jaten dugu? Nola jaten dugu? Zer da bodegoia? Zer ideia zabaldu nahi ditugu gure bodegoien bidez?